



## **IK4ko zentroek guztira 111 milioi euroko diru-sarrerak izan zituzten 2015ean**

[IK4 Aliantza Teknologikoak](#) guztira 111 milioi euroko diru-sarrerak izan zituen 2015ean. Aurreko ekitaldian baino % 9 gehiago, 2014an 102 milioi eurokoak izan baitzituen. Datu horrek azken urteotan izandako joera finkatzen du: 100 milioi eurotik gorako diru-sarrerak mantentzen ditu korporazioak.

2015ean, enpresen zuzeneko kontratazioz lortutako diru-sarrerak 2014koak baino handiagoak izan ziren, eta guztizkoaren % 60tik gorakoak. Ehuneko horrek berretsi egiten du sektore pribatutik eratorritako diru-sarreraren ratioan Europan liderra dela IK4, eta indartu egiten du Europan ikerketa aplikatuko erreferente nagusietako baten modura duen posizionamendua.

IK4 osatzen duten bederatzizentrotan guztira 1.274 langile daude. Horietatik 357 doktoreak dira. % 28 baino gehiago, alegia, eta horrek erakusten du zeinen kualifikazio altua duten IK4ren langile ikertzaileek.

### **I+G+Barekiko konpromisoa**

"Emaitzak oso positiboak dira, erakusten baitute teknologia enpresetara transferitzeko prozesuan IK4 eragile garrantzitsuenetako baten modura finkatuta dagoela eta adierazten baitute I+G+Barekiko dugun konpromisoa Euskadiko ekoizpen-sarearen lehiakortasuna bermatzeko formula dela", adierazi du José Miguel Erdozain IK4ko zuzendari nagusiak.

Azken urteotan bere eskaintza teknologikoa aberasteko eta bere zentroak abangoardiako eragile ikertzaile gisa sendotzeko lanean jarraitu du IK4k. Hori dela eta, aliantzak 3,66 milioi euro baliatu zituen iaz instalazio eta ekipamendu berrietan inbertitzeko. Estrategia hori, gakoa aliantzak aurrera egin dezan, indartu egingo da 2016ean, aldi horretan 10 milioi euro baliatuko baitira inbertsioetarako.